



12-15 urte bitarteko  
ikasleentzako jarduerak.



## 2. URRATSA: INFORMAZIO KRITIKOA JASOTZEA ETA TRATATZEA



Co-funded by  
the European Union





## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea



### **Xedea**

Informazio-iturriak / komunikabideak eraginkortasunez erabiltzeko ezagutzak aktiboki eskuratzea eta trebetasunak garatzea, eta, aldi berean, informazioa kritikoki aztertze gaitasuna borobiltzea.



### **Helburuak**

Ikasleek babes eta migrazio gaiei buruzko ezagutza lortuko dute ikasketa aktiboaren bidez. Ikasleek iturriak ebaluatzeko eta informazioa kritikoki aztertze gaitasuna garatu eta indartuko dute.



### **Gako-hitzak eta edukia**

Migrazioa, behartutako migrazioa, babes, datuak, egitateak, iturri fidagarriak

### **Metodologia eta Iraupena:**

Informazio ikerketa.

Ezagutza eta iritzia, iturri sinesgarriak eta informazio ez-fidagarriak bereizten ikasteko jarduerak, bai eta orokortzeak eta gehiegizko simplifikazioa identifikatzeko jarduerak ere.



Ariketa honek 45-50 minutuko bi saio beharko luke. Bestela, saio bakar batean osa zenezake: A: ikerketan bakoitzeko bi galdera lehenetsiz, edo B: ikasleei eskatuz soilik beren erantzunak idazteko.



Co-funded by  
the European Union

27





## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea

### Gai korapilotsua/konplexua ikertzen ari gara!



Antolatu 3 edo 4 ikasleko taldeak Internet-en bilaketa egiteko galdera hauei erantzuteko. (Ikasleek galderak aurki ditzakete > 2. urratsa: ikasleentzako lan-orrian):

a. A, B eta C zereginak ausaz esleitu talde bakoitzari, ziurtatuz gutxienez bi talde bilaketa berdinean lan egingo dutela, behintzat posible denean.

<b>A Ikerketa-lana:</b>	<b>B Ikerketa-lana:</b>	<b>C Ikerketa-lana:</b>
Zer esan nahi dugu migrazioaz hitz egiten dugunean?	Zer arrazoik eraman lezake pertsona bat bere herrialdea uztera edo ihes egitera?	Zeintzuk dira datu eta estatistika garrantzitsuenak?

b. Eman jarraibideak taldeei beraien emaitzak/ondorioak dokumentatzeko. Ikusizko irudikapena funtsezkoa da; dituzun baliabide eta denboraren arabera, aurkezpen bat prestatzeko ere eska diezaiekezu (FlipChart, PowerPoint eta abar erabiliz), aurkikuntzen irudikapenak barne. (Ikus 2. urratseko galderak - Ikasleen lan-orria.)



Co-funded by  
the European Union

28





## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea



**Zer esan nahi dugu  
migrazioaz hitzegiten  
dugunean?**

**Zer da migrazioa?  
Migratzaile izateko  
herrialde bat (Estatu bat)  
uztea baldintza da? (muga  
bat zeharkatzea)**



**Zertan datza behartutako  
migrazioa? Zein egoeratan  
bihurtzen da errefuxiatu  
bere herrialdetik ihes  
egiten duen pertsona?**

**Zer esan nahi du  
aberrigabea izateak?**



Co-funded by  
the European Union



## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea



**Zer arrazoik eraman  
lezake pertsona bat bere  
herrialdetik migratzera  
edo ihes egitera?**

**Herrialde batetik ihes egiteko  
arrazoi batzuk hainbat arazorekin  
lotuta egon daitezke, hala nola  
politikarekin, klimarekin,  
generoarekin, erlijioarekin eta  
ekonomiarekin.**

**Bururatzen al zaizu beste arrazoirik?  
Identifikatu herrialde bakoitzeko  
adibide bat.**



Co-funded by  
the European Union

30






## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea



### Zeintzuk dira datu eta estatistika garrantzitsuenak?

Zenbat pertsona desplazatu  
zituzten mundu osoan  
2023an? Zenbat ziren umeak?  
Zenbat ziren emakumeak  
Zein herrialdek hartzen ditu  
errefuxiatu gehien?



Zenbat pertsonak eskatu  
zuten asiloa Europar  
Batasunean 2023an? Zenbat  
gizabanakok egin zuten ihes  
gure herrialdera 2023an?

Horietatik, zenbat joan ziren  
beste herrialde batera? Zein  
herrialdeetakoak dira gure  
herrialdean asiloa eskatzen  
duten errefuxiatuak?



Co-funded by  
the European Union

31





## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea



Zure ikasleen ezagupenei eta trebetasunei buruz egiten duzun balorazioan oinarrituta, orientazio-maila desberdinak eman ditzakezu. Erabili urrats honen amaieran bildutako informazio-iturrien zerrenda eta gehitu zure herrialdeko iturriak, hala nola, agintari garrantzitsuen web orriak, GKEak eta ospe handiko komunikabidetakoak.



Ikasleei iturri fidagarrien eta ez-fidagarrien arteko bereizketa egiten laguntzeko, bietako adibideak partekatzea planteatu. Eman "sinesgarritzat" jotzen dituzun erakunde eta komunikabideei buruzko erreferentziak, baita orokortze desegokirako edo albiste faltsuetarako duten joeragatik "problematikoak" izan daitezkeenak ere. Hor sar daitezke komunikabide sentsazionalistak edo gehiegizko simplifikazio edo desinformazioengatik ezagunak direnak, baita migrazioaren aurkako ikuspegiak dituzten erakundeen webguneak ere. Gainera, ahal izanez gero, hainbat egunkarietako berri eman, desberdintasun horiek argitzeko




Co-funded by  
the European Union

32





## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea



### Hausnarketa ariketa praktikoa

Azaldu urrats honetako hausnarketa ariketa (Hausnarketa ariketa praktikoa, Ikasleek galderak aurki ditzakete > 2. urratsa: ikasleentzako lan-orrian). Goazen muinera! Jasotako informazioa erregistratu ondoren, esan taldeei hurrengo pausoak burutzeko:



**Laburbildu zure aurkikuntzak: Zein informazio aurkitu zenuen galdera bakoitzari buruz?**



**Identifikatu bitxikeriak: Egin ezazu zerrenda bat ikerketan zehar sortu zaizkizun 5 galderekin**



**Perspektibei buruz hausnartu: Nola egiten dute bat edo ez zure aurkikuntzk taldeko kide bakoitzak gaiari buruz alde zuzenak zituen perzeptzio edo ezagutzekin?**



Co-funded by  
the European Union

33







## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea

### Partekatu eta alderatu.



Talde bakoitzak bere ondorioak partekatzen ditu klasearekin. Horretarako, irakasleak A, B eta C zeregineko galdera bat ausaz aukeratzea eta ikasleen artean honako galdera hauek partekatzea gomendatzen da:

1

Norbaitek zerbait desberdina aurkitu du? Zer aurkikuntza aurkitu ditugu?

2

Zein izan ziren nire hasierako gogoetak eta nola aldatu dira informazio hau jakin ondoren? Zergatik?

3

Galdera berarentzako erantzun ezberdinak aurkitu dituzu? Zerk azal ditzake desberdintasun horiek?

**\* Aukera ona da 1. urratsean garatutako laguntza bisualak erakusteko.**



Co-funded by  
the European Union

34





## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea



Helburu nagusia da ikasleek onartzea migrazioa gai konplexua dela. "Migratzaile" hitza online bilatzean, lehen irudietan, askotan, beren herrialdeetatik ihes egiten duten pertsonak irudikatzen dira txalupa txikietan edo bide zailetan barrena. Hala ere, funtsezkoa da ulertzea migrazioa aldi berean behartua eta borondatezkoa izan daitekeela. Ikasleek ulertu beharko lukete, halaber, gerra eta gatazka ez direla behartutako migrazioaren arrazoi bakarrak; badira beste arrazoi batzuk sufrimendua eragiten dutenak eta giza eskubideen urraketatzat har daitezkeenak.



Ikasgai honetarako, onuragarria izan daiteke Together4Change erakunde kolaboratzailearen laguntza izatea, hala nola JRSko ordezkari batena edo errefuxiatuek/migratzaileek zuzendutako erakunde batena. Aritu batek ikerketa-eginkizunekin zerikusia duten aurkezpenen berri eman lezake, eta informazio osagarria eskaini, beharrezkoa denean. Gainera, astirik badago, adituak bere ikuspuntuak eman ditzake. Eskolako beste irakasle batzuekin lankidetzan aritzea ere onuragarria izan liteke; adibidez, Geografiako irakasle batekin elkarlanean aritzeak irakasgaiaren datu-analisia eta ikerketa-osagaiak indartu ditzake.



Co-funded by  
the European Union

35





## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea



Zure erakunde kolaboratzailea lagungarria izan daiteke informazio zehatzago aurkitzeko. Zuk gonbidatu dezakezu zure erakunde kolaboratzailea ikerketaren emaitzez aurkezpenera, ikasleek zer aurkitu duten entzun dezaten eta, ziurrenik, ikasleen ikerketa osatzeko informazioa eskaini ahalko dute.



### Hausnarketa ariketa praktikoa

Azaldu urrats honetako hausnarketa ariketa (Hausnarketa ariketa praktikoa, Ikasleek galderak aurki ditzakete > 2. urratsa: ikasleentzako lan-orrian).



Zer da berria eta harrigarria niretzat?



Jasotako mota desberdinetako informazioek zer sentipen dakarkidate?



Co-funded by  
the European Union

36





## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea

### Laburpena eta transizioa



**Eskatu ikasleei esaldi batzuetan laburbiltzeko urratsa honetan ikasitakoa. Ikasle batzuek beren pentsamenduak partekatu ondoren, haien ikuspuntuak laburbil ditzakezu zure hitzetan, ikasgaiaren helburuak aipatuz.**

Astia baduzu, jarduera labur bat egin. Eskatu ikasleei "migrazio" terminoa online bilatzeko eta emaitzen goiko aldean agertzen diren irudiak aztertzeko. Irudi hauek, ziurrenik, basamortuetan, oihanetan, itsasoetan eta abarretan desplazaturiko jende multzo handiak irudikatuko dituzte. Irudi horiek benetako egoerak irudikatzen dituzten bitartean, gogoratu ikasleei migrazioak askoz gehiago barne hartzen duela, ikasi duten bezala, eta gai konplexua dela.



**Migrazioa**



Azkenik, azaldu nola garatuko den hurrengo urratsa: "Hurrengo urratsean, errefuxiatuen bizipenetan eta egoeretan sakonduko dugu". Hurrengo faserako hainbat jarduera aurreikusita daudenez, zehaztu dezakezu zein izango den egingo duzuen jarduera.



Co-funded by  
the European Union

**37**





## 2. urratsa: Informazio kritikoa jasotzea eta tratatzea

### Useful information sources



Ondorengo web orrietan errefuxiatu eta migrazioari buruzko testuinguruko informazioa, datuak eta egitateak aurkituko dituzu,

[Websites of the Jesuit Refugee Service](#)

[JRS Europe](#)

[JRS Ireland](#)

[JRS Malta](#)



Europako eta nazioarteko erakundeen beste web orriak:

[UNHCR](#)

[European Council on Refugees and Exiles \(ECRE\)](#)

[EU-Commission department Migration and Home Affairs](#)

[Catholic Migration Commission \(ICMC\)](#)


[Migrants & Refugees Section of the Vatican](#)

[European Migration Network Glossary](#)

[International Organization for Migration \(IOM\)](#)

[PICUM](#)

[Amnesty International](#)



Co-funded by  
the European Union

38

